

Tailer berriak gaztelekuan

Hilaren 5ean hasiko dira Martuteneko gaztelekuko datorren hiruhilabeteko ikastaroak. Oraingoan ipuin kontalaritza, txalaparta eta perkusio tailerrak egin ahal izango dira.

Txalaparta tailerra izango da lehendabizikoa, hilaren 5ean. Tailerra larunbatetan egingo da 11.00etatik 13.00etara. Perkusio taile-

Izen emate epea zabalik da dagoeneko

rrak, bestalde, bi txanda izango ditu. Lehendabizikoa, hilaren 5ean hasiko da eta perkusio saioak larunbatetan egingo dira 11.00etatik 13.00etara. Bigarren txanda hilaren 10ean hasiko da. Ostegunetan egingo da 18.00etatik 20.00etara.

Azkenik, hilaren 8an ipuin-kontalaritza tailerra hasiko da. Saioak asteartetan egingo dira 18.00etatik 20.00etara. Tailer bakoitzean parte hartzeagatik 1.300 pezeta ordaindu beharko dira. Izena emateko epea zabalik da dagoeneko. Informazio gehiagorako 943-466492 telefono zenbakira dei dezakezu.

Bestelako jarduerak

Internet tailerra- Hilak 8 eta 15 (18.00-20.00)

Skate tailerra- Hilak 22 eta 29 (18.00-20.00)

Kirol irteerak- Hilak 3,10, 17,24, 31 (17.30)

Bideo emanaldiak- Hilak 9, 23 (17.30)

Mahai jolasak- hilak 16, 30 (17.30)

Hilaren 15ean San Isidro

Hilaren 15ean San Isidro dela eta, Loiola eta Martuteneko baserritarrentzat bazkaria antolatuta da. Ez da ohiko bazkaria izango hainbat bertsoarik parte hartuko baitute bertan.



Skatean aritu nahi izanez gero, gaztelekura joan besterik ez duzu.



Hernani Institutua

A. Iturriaga - K. Labaka



HERNANI Institutuko eskaintza

LOGSE BATXILLERGOA

Teknologikoa
Giza eta Gizarte Zientziak
Natur eta Osasun Zientziak

ERDI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Mekanizazioa
Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Proiektu Mekanikoen Garapena
Instalazio Elektroteknikoak
Gizarte eta Kultur animazioa
Turismoaren Informazioa eta Merkaturatzea
Alojamendua

AURRE INSKRIPZIO DATAK:

BATXILLERGOAK

Maiatza 2-11

ZIKLOAK

Ekimak 1-12

TELEFONOAK: 943 55 11 88 - 943 55 19 58